



ALTERNATIBEN HERRIXKA DONOSTIA
EKAINAK 6 (eta 5)
Antigua-Matia

Zer da Alternatiben Herrixka?

Beste era batean bizitzeko askotariko eredu en topagune bat da.

Gaur egun bizi dugun klima aldaketari aurre egiteko egiazko aukerak biltzen eta bistaratzen dituen herrixka simulazio bat da. Aukera indibidual, kolektibo, nahiz lurralde eta sistema mailakoak ezagutzera ematen dituena, beste bizi-eredu baten garrantziaz ohartaraziz, eta jokabideen aldaketa bilatuz.

Hiru dira helburu nagusiak:

- **Larrialdi klimatiko egoeraren mezua zabaltzea.** Berotegi efektuak sortzen dituen kalteei buruz, eta nazioartean nahitaezkoak diren akordioak ez izatearen ondorio larriei buruz sentsibilizatzea.
- Egoera horren aurrean, **transizio soziala, energetikoa eta ekologikoa lehenbailehen abiarazteko deialdia.**
- **Bestelako gizarte modu bat lortzeko, beste era batean bizitzeko ereduak badirela erakustea.** erronkak sor dezakeen ezintasun eta desmobilizazioari aurre eginez, eta aukerak atsegin-iturri eta jendarte zoriontsuago eta gizatiarrago baten ekarle direla erakutsiz.

Zergatik Donostian?

Alternatiben Herrixkak Frantzia du iatorria eta iomuga 2015eko abenduan Parisen ospatuko den Klima Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia du. Horregatik, aurtengo ekainaren 5ean, 5.000 kilometro egingo dituen bizikleta-martxa bat irtengo da Baionatik eta irailaren 26an iritsiko da Parisera, tartean Europako 6 estatu zeharkatuz. Donostiakoa lehen geldialdia izango da, ekainaren 5ean bertan.

Bilbon urriaren 24ean ospatuko den Euskal Herri mailako Alternatiben Herriaren lehen pausoa izango da Donostiako esperientzia.

Zer itxura izango du?

Gaiak duen larritasuna eta garrantzia ahaztu gabe, ekimena jai giroan burutzea da ideia.

- **Ekainak 5: Ongietorria** egingo zaio Antiguara iritsiko den **bizikleta martxari**: harrera, bertsolariak eta afaria.
- **Ekainak 6: Alternatiben Herrixkaren eguna.** Antiguako Matia kalea ardatz hartuta, hainbat eta hainbat ekintza antolatuko dira: alternatiben azoka, kale-animazioa, artisau azoka, haurrentzako iolasak, hitzaldiak, speakers corner-a, tailerrak, erakusketak, mural margoketa, dokumentalen emanaldiak, kontzertuak, ...



Nork har dezake parte?

Edonork har dezake parte eta bakoitzak nahi duen neurri eta formatuan jaialdi guztiz irekia izango da.

Orain arte gehitu diren eragileak ezagutu nahi? Dokumentuaren amaieran duzu Alternatibaren Lagunen zerrenda zabala.

Gogoratu: norbanako beste alternatiba daude. Aukeratu zeurea!

ANIMATU ALTERNATIBEN HERRIXKAREN PARTE IZATERA.

Inongo konpromisorik gabe jarri gurekin harremanetan:

alternatibenherrixkadonostia@gmail.com

Informazio gehiagorako:



Alternatibaren Herrixka Donostia



@AlterHerriDonos

#alternatibenherrixka#donostia





ALTERNATIBAREN LAGUNAK	
AHTren aurkako plataforma	Goyeneche Fundazioa
Aingura Kofradia	Grain
Antigua Otarrak kontsumo taldea	Greenpeace
Auskalo Aisialdi Taldea	Guifi.net
Auzoene	Haritzalde
Banda Bat	Hazizaleak Kultur Elkartea
Basherri taldea	Ikertze
Bizi!	Kalapie
Calcuta Ondoan	Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkartea
Donostiako Bidezko Merkataritza Taldea	Koop57
Donostiako Piratak	Kutxa Ekogunea
Donostiako Udala	LAB
Egiako auzo elkartea	Laborantza Ganbara
Eguzkizale Konpartsa	Lurlan
EH Eskubide Sozialen Karta	Me Cambio
EHZ	Mugarik Gabe
Ekoliderrak Sarea	Mugarik Gabeko Albaitariak
Ekologistak Martxan	Mugarik Gabeko Ekonomilariak
ELA	Olatukoop
Emakumeen etxea	REAS
Emaus Gizarte Fundazioa	Saretuz
Etxi gabe	Sin desperdicio
Fiare	Surfrider
Fracking ez	Txantxarreka gaztetxea
Gabiltza	Uliako Auzo elkartea
Gaze	Ximaurpila
Goiener	Zero Zabor Naturaren Babeserako Elkartea



DONOSTIA

Alternatiben Herrixka

ekainak 6 junio

ALTERNATIBA

Antigua-Matia

*zu falta zara
bideari ekiteko!!*



*¡faltas tú
para iniciar el
camino!!*



Jarraitu guri! ¡Síguenos!- Alternatiben Herrixka Donostia

@AlterHerriDonos

#alternatibenherrixka#donostia

